


LEMA



NESKA * GAZTEOK BATERA EKINGO DIBGU!

Eskerrik asko Euskal Herriko neska gazteon sarea osatzen duzuen kide guztiei. Egunero, gazte mugimenduetan eta mugimendu feministan antolatuta zaudeten horiei. Baina bereziki, eskerrik asko liburuxka honen parte izan zareten eta izango zaretenei!*

*Nahi ezkeru erantzunak,
ohiko materiala,
esku artean duzun hau
utz zazu berehala.
Badakizu gure_haizeak
indarra daramala,
eta jarri nahi diogu
sukaldeko mantala.
Kuleroak, diskurtsoak
zein gazteen azala,
gida hau gorputz bat dugu
gurea den bezala;
aldatzen joango dena
erabili ahala.*

Maialen Akizu
Doinua: haize hegoa, gau epela

PROIEKTUA

Nor gara? Zerk egiten gaitu? Neskak gara. Feministak eta gazteak. Zapalkuntza ugarik zeharkatzen dituzte gure gorputzak... Baina indarra ere bagara. Errebeldia gara, erritmo bizia gara. Kritika eta borrokarako grina gara. Aurrera goaz, aurrera pausoka. Bidean egingo gara, bideak egingo gaitu!*

Ariketak

1. Eskailera

Afirmazio desberdinak irakurriko ditugu, eta horrela, neurtuko dugu zenbateraino izan garen zapalduak, eta zenbateraino zapaltzaile.

Ariketaren helburua:

Batetik, irudikatzea ez dagoela zapalkuntza bat eta bakarra; bizitzako esparru desberdinetan botere-harreman desberdinek gurutzatu gaituzte, eta paper desberdina jokatu dugu bakoitzean.

Bestetik, neska eta gazte garen heinean, bakoitzak bere bizipenak dituen arren, baditugu konpartitzen ditugun zapalkuntza-egoerak. Hori horrela izanda, zapalkuntza horiei aurre egiteko subjektua ere bagara neska gazteok.

Metodologia:

Dinamizatzaileak baieztapen bakoitza botako du. Borobil batean kokatuta egongo gara, denok denoi begiratuko diogularik. Eskailera bat izango balitz bezala, identifikatuta sentitu banaiz pausu bat emango dut aurrera baieztapen bakoitzean. Baieztapen bakoitzaren ondoren tartea utziko dugu norbaitek zeozer azaldu nahi badu (zelan sentitu den...) tartea izan dadin. Ariketa guztiak bukatzean guztiok batera hausnartuko dugu, ea ze ondorio ateratzen dugun:

- Afirmazio hauetan zein zapalkuntza identifikatzen ditugu?
- Ikusi dugu baieztapen batzuetan identifikatuta sentitu garela bereziki?
- Gazte izateak zein eragin izan dezake?

Gero, hartu tarte bat zure taldean esaldi proposamenak egiteko; neska* gazte talde bakoitzaren arabera.

Esaldiak:

- Lan bat eskaini zidatenean ez nituen lan baldintzak ere galdetu beldurra / lotsagatik.
- Gehiagotan deitu naute prentsaurreko batean irakurtzeko, testua idazteko baino.
- Prentsaurreko bat prestatzea tokatu zaidanean, beste norbaiti deitu izan diot irakurtzeko, bere perfilak ekarpena egingo zuelakoan.
- Noizbait bere adinagatik, ikasketengatik, euskara mailagatik... baztertu dut norbait.
- Herriko koordinadora/asanblada feministan, kide helduagoek ez dituzte kontutan hartu orain arte egindako ekarpen gehienak.
- Emakume bat femeninoegia/maskulinoegia zelako mesfidantzaz jokatu dut berarekin.
- Gurasoek esan didate orain bizitzen ari naizen fasea pasatuko zaidala.
- Gaztetxeko asanbladan esan didate proposatu duten ideia duela 5 urte probatu zutela, eta baztertu da.
- Nire interesak proiektuaren edo taldearen gainetik jarri ditut.
- Militatzen ez duen neska* gazte baten ikuspuntu feminista zalantzan jarri dut.
- Irakasleek esan didate, karrera erabakitzerako orduan, niri bizitzako erabakirik garrantzitsuenetarikoa izango dela.
- Garrantzia gehiago eman izan diot nire ikasketa unibertsitarioei, beste batzuek dituzten ikasketa mailei baino.
- ...

2. Kontzeptuak gure eginez

Ariketaren helburua:

Ariketa honekin neurtuko dugu nola bizi dugun neska eta gazte izatea, eta horrek dakartzan zapalkuntzen kontzientzia.

Metodologia:

Idea zaparrada: hitz klabe batzuen definizioa osatzen saiatuko gara, hitz horiek guretzat duten esanahia bilatu nahi dugu horrela: hitz horiekin burura etortzen zaiguna idatzi (edo margotu, antzeztu ... bakarka edo taldeka izan daiteke).

- Feminismoa _____

- Gazte _____

- Emakumea*

- Zapalkuntza

Lau hitz horiei jarri diegun definizioa (edo marrazkia, edo antzezpena) konpartitu ondoren, lau hitz horiekin esaldi bat osatuko du bakoitzak.

Osatu ditugun esaldiak erabiliko ditugu hausnartzeko hitz bakoitza nola bizi dugun (ondokoarekin komentatuz edo talde handian).

- Zer esanahi daukate guretzat hitz hauek?
- Nola harremantzen ditugu euren artean?
- Borroka feministan zein paper du kontzeptu bakoitzak?
- Eta elkarren artean zein harreman dute?

* Emakume kategoria erabiltzen jarraitzen dugu gure egungo errealitatean politikoki eragiteko oraindik baliagarria delakoan, nahiz eta sexu-genero sistemak markatzen duen binomioaz gaindi bizipen, ibilbide, ahalmen eta identitate anitzak ere bagaren (bollerak, trans...).

3. Hausnartuz

Ariketaren helburua:

Gaztetasunaren izaeraren inguruko hausnarketa bat ematea modu irekian: gaztetasunak zer ezaugarri dituen, nola eragiten digun espazio batzuetan gazte izaera horrek, zeintzuk diren gazteria subjektu soziopolitiko bezala sortzeko baldintzak...

Metodologia:

Kide kopuruaren arabera testuak talde handian edo lantaldeka irakurri eta guztion artean hausnartu zer klabe ateratzen ditugun ideia horietatik. Lagungarria izango litzateke ideia horiek modu bisual batean apuntatzen joatea (kartulina handi batean adibidez). Ariketak ez dauka itxiera konkretu bat, talde bakoitzak bere ondorioak atera ditzake.

Testua: Zein paper jokatzen dute gazteek borroketan?

Neska gazteok feminismitik ikasi dugu genero rola ikasi egiten direla, emakume egin egiten gaituztela. Orokorrean gazteok artaldeko norbanako bat gehiago izaten ere irakatsi egiten digute, hiritar perfektua izango garelara sinesteko hezten gaituzte, nahiz eta feminismitik besteak beste ikasi dugun ez dagoela hiritasun perfekturik egiturazko zapalkuntzek dirauten artean: generoa, klasea, kultura, jatorria... horrela, gazteok "emantzipazioa" deitu dioten gezurraren bidez sisteman integratzera bideratzen gaituzte. Integrazio ibilbide horrek (eta baita helmugak) ere gero eta gehiago esan nahi du esplotazioa eta prekarietatea, oraindik helduak ez garen horiek garelako, esperientzia falta zaienak, heldutasuna falta zaienak... are gehiago emakumeon kasuan.

HELDUEN BOTEREAren bidez "emantzipazio"=integrazio logika horretan hezten gaituzte. Helduen boterea pertsona nagusiek gazteagoekiko duten harremanen garatzen duten boterea da, forma zuzen eta ez-zuzenean (egitura ezberdinen bidez), modu kontizente edo inkontzientean. Botere harreman hau rolen, arauen, ohituren, pentsamendu moduen, mugapenen... bidez ematen da. Sistema "helduzentrista" honetan, heldua da neurria, eta gainontzeko giza-taldeok baztertuak gara neurri horretara hurbiltzen ez garen heinean, gazteok ere. Gazteok giltzarri gara sistema kapitalista heteropatriarkalaren erreproduzioan, beraz.

Feminismoak emakume bezala ahalduntzeko tresnak eskaini dizkigu, emakumeon artean elkartu, ahaldundu edota eragiteko estrategiak pentsatu eta kolektiboki borrokatzeko ateak ireki dizkigu emakume askori. Emakume bezala zapalduak izteak nola eragiten digun aztertu, eta bestetik zapalkuntza anitzez osaturiko sistema hau gainditzeko borrokan gainontzeko zapalduekin bat egiteko kokalekua eskaini digu, gure agenda eta aldarrikapenak, gure bizitzak erdigunean jartzeko tresnak. Neska gazteoi ere, mugimendu feministak tresnak eskaintzen dizkigu bizi-ibilbide hortan eredu hegemonikoekin hautsi eta bestelako bizi-eredu askatzaileak garatzeko, genero araukin eta heteronormarekin apurtzeko.

Hala ere, patriarkatuak gure bizitzako esparru oro bustitzen duen bezala, helduen botereak eta bere mekanismoek ere eragiten dute helduekin konpartitzen ditugun espazio eraldatzaileetan ere. Gaztetasunak "ezagutza kentzen digu", eta horrek lotsak, inseguritateak... eragiten dizkigu. Gainera, aldaketa sozialak gero eta azkarragoak diren honetan, belaunaldi ezberdinen arteko mundu ikuskeraren arrakala handituz doa, borrokarako nahi eta behar, zien modu ezberdinak sortuz. Sarri gazteoi mugimendu edo talde ezberdinetan pertsona berriak behar direnean begiratzen zaigu soilik. Helduen boterea ez da esperientzia gutxiago izategatik gazteon parte hartzea zailagoa izatea edota aintzat ez hartzea besterik ez. Zentroan nor jarri eta lehentasuna zeri eman erabakitzea ere bada.

Horregatik neska gazteok espazio propioak behar ditugu, mugimendu feministarekin zubigintzan. Espazio propioak behar ditugu gure errealitatek feminismoa berraztertzeko, gure erronka propioak zehazteko, eta bertatik mugimendu feministari ekarpen ahalik eta handiena egiteko, borrokan indar osoz parte izan gaitezten.

Horretaz gain, helduen boterean gainditzera bidean, eta sistemaren erreprodukzioari aurre egiteko ikuspegitik gazte mugimenduetan edo gazte esparru ezberdinetan egiten den lanak ere askatzailea izango abda feminista izan behar duelako, neska gazteok esparru horietan feminismitik eragiteko tresnak behar ditugu, gazte boterea feminista izan dadin.

4. Termometroa

Ariketaren helburua:

Bakoitzak kontzeptu bakoitzaren inguruko esperientzia azaltzea eta talde bezala ere hausnartzea definizio bakoitzarekin nola kokatzen den.

Metodologia:

Azken ariketa honetan, lau termometro irudikatu ditugu, eta bakoitzari hitz bat egotzi: Emakumea*, gaztea, feminismoa eta zapalkuntza.

- Bi aukera: Bakoitzak bere termometro propioak edo talde osoak termometro bakarra. Taldekide bakoitzak lau gometsa izango ditu, eta tarte bat hartuko dugu gometsa bakoitza termometro bakoitzean kokatzeko, gorago edo beherago.
- Ariketaren berezitasuna zera izango da: ez diogu irizpide zehatzik ezarriko termometroari. Bakoitzak bere irizpide propioen arabera itsatsiko ditu gometsak: izan daiteke kontzeptu bakoitzak sortzen dizkidan zalantzen arabera, kontzeptuaren inguruan askotan hausnartu izan dudalako, hausnarketarako gogoak piztu dizkidalako, kontzeptuaren inguruko ezagutza handia dudalako...
- Gometsak itsasteko tartearen ondoren, taldean konpartituko dugu gometsak itsatsi ditugun tokian itsastearen arrazoia.

5. Lorearen dinamika


Ariketaren helburua:

Norbanako pribilegio eta zapalkuntzen inguruan hausnartzea, eta horrekin batera, modu kolektibo batean taldeak daukan ikuspegi eta posizioa zein den pentsatzea (hau da, gerta daiteke, talde batean gehiengoaren barruko petaloetan kokatzea. Beraz, horrek esan nahiko luke.

Metodologia:

Hasteko, kasu honetan 8 petalodun lore bat proposatu dugu, baina talde bakoitzak moldatu ahal du bere errealitatearen arabera petalo gehiago gehituz edo kenduz. Lorea kartulina batean edo paper zati handi batean margotuko dugu eta taldekide bakoitzak 8 gomets izango ditu, bere burua non kokatzen duenaren arabera kokatuko ditu: barruko petaloek pribilejiadun egoerei egiten diete erreferentzia eta kanpoko petaloek, aldiz, pribilejiarik gabeko egoerei.

Taldekide bakoitzak nahi duen moduan eta ordenean kokatuko ditu gometsak (honetarako 5-10 minutu hartuko ditugu eta musika jarri daiteke). Ondoren, denon artean taula begiratu eta taldearen izaeraren inguruan hausnartzen hasiko gara, gidaren bigarren atalari sarrera emanez.



TALDEA

Ezinezkoa zela esan ziguten, baina berandu. Ez gaude bakarrik. Ez daukagu beldurrik. Asko, aski eta aske gara! Neska gazteok batzea, saretzea eta ehuntzea ezinbestekoa da. Espazio erosoak behar ditugu, barrura begiratu, elkar zaindu eta elkarrekin armatu behar gara. Espazio berriak konkistatuko ditugu elkarrekin!*

Ariketak

1. Plangintzatzea

Ariketaren helburua:

Talde bakoitzak plangintza bat egiteko elementu nagusiak ateratzea da atal honen helburua. Herri edo auzoko diagnostikoa egin, plangintzatzea eta lehentasunak ezartzea.

Metodologia:

Plangintzatzea bi zatitan banatuko dugu: batetik, plangintza egitea bera, baina horren aurretik, taldearen eta inguruaren diagnostikoa osatzen saiatuko gara. Izan ere, plangintza egiteko irizpide desberdinak izan behar ditugu kontutan, eta horretan saiatuko gara lehen ariketa honetan.

DIAGNOSTIKOA

Taldekideon diagnostikoa (nola gaude taldeko kideok? Bakoitzaren ibilbidea + espektatibak ...)

- Ariketa honetarako, kide bakoitzak marrazki bat egingo du: bertan, zuhaitz bat marraztearen bidez, gure buruak irudikatuko ditugu (bakoitzaren ibilbide pertsonala-laborala-militantea, egoera animikoa, taldearekin eta taldekideekin dugun harremana, taldeari emateko prest nagoena... eta beste hainbat ezaugarri irudikatuko ditugu).

*Bideorri bezala erabili, baina ez da zertan jarraitu behar; bakoitzaren zuhaitza ezberdina izan daiteke.

- Auzoa/herriaren diagnostikoa: ariketa honetan, gure inguruaren argazkia jasotzen saiatuko gara. Izan ere, taldeari egozten dizkiogun helburuek ezin dute egon inguruan gertatzen denetik isolatuta. Horretarako, zerrendatuko ditugu gure auzoan/herrian-eskualdean identifikatu ditugun kontu desberdinak. *Ariketa hau egiteko paseo-formatua proposatzen dugu; herritik paseoa joan ahala ukituko ditugu identifikatzen goazen espazioak, eta toki horietan geldituko gara espazio horrek eragiten digunaz hitz egiteko, eta horren gaineko balorazio bat egiteko. Ezin bada, mapa bat hartu eta egin.*

- Irauli beharrekoak> Neska gazteontzat seguruak ez diren guneen identifikazioa (ez dute gune fisikoa zertan izan): adibidez, gune beltzak, esplotatzen duten lantokiak, taberna ez-seguruak, gazte mugimenduko espazio konkrituak, publizitate kanpainak...

- Komeni da bereiztea irauli beharrekoetan ere lehentasunez egin beharrekoak (ahal edo nahi dugun) eta non ez.

- Indartu beharrekoak> neska gazteontzat arnagune diren espazioak, aliatuak: zerrenda hau osatzerakoan, espazio zehatzez gain (seguru sentitzen garen espazio militanteak, tabernak, kaleak...), beste eragileei ere erreparatuko diegu, herriko (edo eskualdeko, edo Euskal Herri mailako) aliantza feministak sortzera begira. Gazte nuugimenduako espazioei bereziki erreparatu.

PLANGINTZATZEA

Diagnostiko-ariketari esker, herrian kezkatzen gaituzten (eta indartzen gaituzten) guneen zerrenda eta horien gainean egiten dugun irakurketa daukagu, eta baita taldekideon egoera ere. Argazki hori izanda, taldeari epe ertainera begira egozten dizkiogun helburuak zehazteari ekingo diogu:

- Lehenasunak markatu> aurreko ariketako emaitzak denon artean irakurri ostean; bikoteka hiru titular adostuko ditugu, taldearen jarduna ezaugarrituko duten izenburuak liratekeenak. Bikoteka osatu ditugun esaldi horiek konpartituko ditugu talde handian, eta guztiak zerrendatu. Behin hori izanda, lehentasunezko zat jotzen ditugun hiru esaldi markatuko ditugu denon artean, eta lehentasunezko eskalan bigarren mailan kokatuko genituzkeen beste hiru.

- Lehentasunak denboran kokatu.

* Osatzen ari garen zerrenda honek ez du esan nahi lehentasunezko zat markatu dugun konturik ezingo dugula egin aurrerantzean. Baina lagunduko digu irudikatzen taldeak zein lanetatik jarri behar duen indarra datozen hilabeteetan.

2. Barne bizitza zainduz

Ariketaren helburua:

Taldearen barne bizitzaren inguruan hausnartzea (bilerak, funtzio-ardura banaketa, zaintza nola gorpuzten den gure taldeetan...). Nahiz eta ariketa hau ikasturte hasieran egitea gomendatzen den, hilabete batzuen bueltan berrikustea eta neurri berriak planteatzea garrantzitsua izango da.

Metodologia:

Aurrez taldearen jarduna zein izango den irudikatzen saiatu gara. Taldearen funtzionamenduak taldearen jardunari erantzun behar dio, eta hori egokitzen saiatuko gara ariketa honetan.

Horretarako, hiru kartulina izango ditugu:

- BILERAK (zenbatean behin bilduko gara? Bilerak nola prestatuko ditugu? Bileretako ondorioak nola konpartitu etorri izan ezin duten kideekin?..)
- FUNTZIO-ARDURA BANAKETA (taldean bete beharreko ardurak zerrendatu, eta ardura horiek nola beteko ditugun zehaztu: gure artean banatuta, rotatiboki, arduren berrikuspena zenbatero...)
- ZAINTZA NOLA GORPUZTU (taldea nola zainduko dut, eta nola zainduko nau taldeak? Zer espero dut taldetik, zaintzaren ikuspuntutik begiratuta?)

Kartulina bakoitzean jartzen duenaren inguruan erabakiak hartu, eta idatzi.

3. NI eta TALDEAREN arteko harremana

Ariketaren helburua:

Ariketa honen bidez, taldean izan ditugun (eta izango ditugun) bizipen positiboak balioan jarriko ditugu.

Metodologia:

Testu bat irakurriko du dinamizatzailerak, eta bitartean, gainontzeko kideak begiak itxita egingo dira. Ondoren, sentitutakoa konpartituko dugu.

Itxi begiak, heldu eskutik elkarri, sentitu, Badira ikusten ez diren gauzak: Besarkada baten indarra, aspaldiko lagun bat gurutzatzearen poza, taldearen babesa, konplizitatea...
Bazenekien? Zuk ere egin nauzu ni, emakume asterisko! Borobilean elkartuta borobilagoa da mundua! Esku emanda pausoa emateko babesa, konfiantza eta ziurtasuna ez dira hitz soilak...

Gogoratzen? gogoratzen asanblada batean eseri zinen aurreneko eguna?
Besoak gurutzatuta, gorputz-makur ez bizitzea erabaki zenuena?
Eta Urduritasunak hitza jaten zizun garaia?
Memoriak ez ditu ezabatzen arrastoak utzi dizkiguten uneak.
Denok dugu norbanako gisa gainditzea kosta zaigun oztoporen bat bidean...
(...) Pentsatu, hartu arnasa eta bota!
Ez da erraza izan. Baina inork ez zigun esan posible ez zenik, saiatzen ez garena
soilik baita ezinezko!
Taldeak egin du ni-a nor, eta ohartzeko ahizpa edo lagun!
Zenbat oroitzapen on, kafe goxo; (Zenbat egun) eta gau zoro!
Zoratuta gaude, bidean pilatutako anekdotak lau haizetara zabalduko bagenu!
Nahi baduzue askatu, hartu arnasa, eta bota! Elkarrekin dena da posible!
Orain bai, Ireki begiak. Begiratu ingurura, ez bat ez bi, asko, aski eta aske gara!
Ezinezkoa zela esan ziguten, baina berandu: Askatasuna ametsa ezin zela izan
aspaldi ikasi genuen!

- Zer da taldea niretzat?
- Taldeak zer ematea nahi dut?
- Zertan indartzen nau?
- Nik zer eman diezaioket taldeari?
- Nola ikusten duzu zure burua taldearen barraun?
- Nolakoa litzateke talde ideala?
- Zer sentitzen dugu elkartzen garenean?
- Zein beharretik elkartzen gara?
- Zer sortzen da gure artean?
- Garrantzitsua da guretzat horrelako espazio bat?

Galdera horietaz bakarka hausnartu ondoren, bata besteari galdetuko dizkio. Galdetu duenak bere kidearen erantzuna jasoko du idatziz eta ostean, bakoitzak bere erantzunak eramango ditu etxera lasai irakurri eta esandakoaz hausnartzeko. Beste proposamen bat: galdetzen duenak, paperarekin batera, objektu bat eman diezaioket erantzuten duenari (adibidez, kanika bat). Bakoitzak bere objektua etxera eramango du, eta konpromisoa hartuko du objektua ikusten duen bakoitzean une batez gelditu eta pentsatzea: taldearekiko nola sentitzen den, zein den momentuan duen erlazioaz...

Ariketa egiteko metodologia alternatiboa ere proposatzen dugu: gorputzekin, inguruko elementuekin, etab. eskulturak osatzea galderei erantzuteko.

* *Atal honetan gehiago sakontzeko: AINGURA -talde osasun gida-*

NIA

*NI. Pertsona. Militantea. Militantea naiz, gaztea eta feminista:
bizitzako esparru guztiak dira borrokarako-esparrua.
Espazio feministak gaztetuz eta gazte mugimendua feminismoz
bustiz. Baina bereziki, etengabe astinduz, irauliz, ingurukoa ere
gaztetuz. Batera ekingo diogu!*

Ariketak

1. NI pertsona- militantea

Ariketaren helburua:

Ariketa honen helburua izango da ulertzea gure baitan dugun MILITANTEA eta PERTSONA ni beraren bi alde direla, etengabeko elkarrekintzan daudenak.


Metodologia:

Ariketak hiru zati bereizi izango ditu.


- Lehenik, taldeko kide bakoitzak bi post-it hartuko ditu, eta bakoitzean norbere burua deskribatzen duen adjektibo bana idatziko du, bata NI-MILITANTEAri erreferentzia eginez, eta bestea NI-PERTSONAri.

Gelako pareta batean, edota gelako erdialdean, bi kartulina izango ditugu. Bakoitzean silueta bana izango dugu, bata MILITANTEA hitza izango du idatzita, eta besteak PERTSONA hitza.

Adjektibo bana idatzi ondoren, norberak bere papertxoak kartulinatan itsatsiko ditu, hitz bakoitza dagokion kartulian kokatuta. Taldeko kide guztiok hori eginda, kartulinak bistan utziko ditugu.



Militantea



Pertsona

- Ariketa honekin saiatuko gara gure baitako ni-militantea eta ni-pertsona-ren arteko konexioa egiten.

Egunean zehar zein espaziotan naiz zapaldua? (ikasketa prozesuan, lanean, gazte mugimenduko espazioetan, familian ... + eta mugimendu feministan?)--> espazio desberdinetan bizi ditudan zapalkuntzen inguruan hausnartu, eta zerrenda batean idatzi.

Ondoren, bakarka, zerrendatu ditugun espazio horien aurrean nire paperak zein izan behar lukeen pentsatuko dut: Espazio horiei aurre egiteko, horiek iraultzeko, zer egin dezaket nik? Horretarako zeren beharra dut? Saiatuko gara ondorioztatzen, gazte eta feminista garen heinean, zapalduak garen espazio orotan gure funtzioa izan behar lukeela militante aktibo gisa jokatzea, egoera oro iraultzeko anbizioa izatea.

- Azkenik, ariketaren lehen zatian erabili ditugun bi kartulinak berrartuko ditugu, eta horietan itsatsi ditugun hitzei erreparatuko diegu, eta altuan irakurri (erronda bat egin dezakegu, nahi duenak azaldu dezan zergatik idatzi dituen hitz horiek). Ondoren talde handian hausnartuko dugu:

- Zein ajektibo mota dago kartulina bakoitzean?

- Zerk bereizten ditu kartulinak? Edo antzekoak al dira?

- Ba al daude elkarren artean kontrakoak diren ajektiborik? Eta elkar osatzen dutenik?

- Zaila egin zaigu bi adjektiboak modu bereizian ulertzea? Ala bata idaztea bestea baina errazagoa egin al zaigu?

Amaitzeko... dinamizatzailleak ondorengo testua irakurriko du altuan, gainontzekoek entzuten duten bitartean (gainontzeko kideek, bitartean, elkarren artean kontaktu mantendu beharko dute, izan daiteke eskuak emanda, elkarren gainean etzanda, elkarren bizkarrak bizkarrekin ikututa, elkarri begiratzuz...)

Pertsona ala militantea, militantea ala pertsona. Non hasi, eta non amaitu bakoitza? Nondik sentitzen dut, eta nondik borrokatzen? Gorputzetik. Azalean egiten dizkidaten zauriek, bistan jartzen zaidan itzal bakoitzak gurutzatzen nau. Eta astintzen. Etengabe.

Eta banoa txikitzen, apurtzen, jabetu arte, zauri horien atzean, azal horren azpian, hezur eta haragian badudala alternatiba. Ni neu? Barruan dut indarra eta sua, ni naiz tresna eta bidea. Eta ekin diot bide honi, nire orainari.

Baina hain da luzea bidea, hain txikiak nire esku hauek... eta orduan, ondokoaren eskuak ikusi ditut, nireak bezain txiki. Eta begietan, nire su bera. Batera ekingo diogu, ekin diogu orainari.

Gure eskuak esku gazteak dira. Zer da baina, gazte izatea? Gaztetasuna errebeldia da. Gaztetasuna erritmo bizia da. Gaztetasuna kritika da, borrokarako grina. Eta baita ere, prekarietatearen aurpegirik gordinena. Baina bereziki, etengabe astintzea, iraultzea, ingurukoa ere gaztetzea.

Eta ondokoaren begietan, nire begietako su feminista bera topatu dut. Feminismoa gure gorputzak babesteko tresna gisa, ondokoak zaindu eta ingurua eraldatzeko arma gisa ulertuta. Ba al dago hau baina bide emankorragorik? Pausu bat eman, eta beste pausu bat urruntzen da helmuga. Zenbat lan egiteko! Baina zenbat irakaspén eta bizipén, bidean zehar!

BATERA EHINGO DIOGU!

...GOAZEN BATERA
EKITERA!

